



2024-2025 ESKOLA KIROLA / GOLF

Familia agurgarriak;

Bizkaiko Golf Federazioak GOLF hastapeneko 2 ikastaro mota eskaintzen ditu (I. eta II. mailak), Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirolaren programaren barruan.

Ikastaroak astegunetan edo asteburuetan emango dira, Meaztegiko zelaietan, Celles Golf Eskolan, Bizkaiko Golf Akademian eta beste kirol-klub batzuetan, sortzen diren taldeen interesaren eta erakunde antolatzailearen aukera logistikoen arabera.

I. mailako ikastaroak 12 orduko iraupena izango du eta 20 euro balio du. II. mailako ikastaroak 10 orduko iraupena izango du eta 20 euro balio du. Ikaslearen lekualdaketa familiaren kontura izango da. Plaza kopurua mugatua da, eta ikastaroen antolaketa eta kudeaketa Bizkaiko Golf Federazioari dagokio, material guztia ematen baitu. Arropa eroso eta kirol-zapatilak bakarrik eraman beharko dira.

Zenbatekoa federazioaren kontuan sartu behar da, eta ikastaroan izena ematean horren egiaztatzea bidali. Ikastetxearen izena eta, banakakoa bada, ikaslearen izena adierazi behar dira.

ES33 2095/0000/70/9102971272

Informazio gehiagorako Bizkaiko Golf Federazioarekin jarri ahal zarete harremanetan

Web orria: www.bizkaigolf.eus

Posta Elektronikoa deporteescolar@bizkaigolf.eus

Telefonoa: 944 394 121

Eskerrik asko zure arretagatik.